

## Gezur handia

JOAN MARI TORREALDAI



**BESTE** zerbaitetz idazteko asma nuen orainoan. Eta konturatu gabe gerrara izuli naiz. Golkoko gerrara, noski.

Egia esan, ezin naiz gerra honestik libratu. Gezur handi bat izan da guzti hau. Horra nere sentazioa. Engainatu egin gaituzte. Bai, engainatu. Saddam Satan bihurtu digute. Bale. Irakeko armada munduko laugarrena omen zen. Bale ba. Eta txori gaiso haren argazkia ez zen orainoan eta txori hura ez zen Golkokoa. Bale hori ere. Ez, ez. Hori baino sakonagoa izan da engainua. Bi puntu ikusten ditut nik kezagarri. Bat: mendekuarren legea. Mendekua gainditzean omen dago gizarte 'zibilizatuaren' arragoa. Alegia, Talion legearen gainetik modu 'zibilizatuak' erabiltzea harreman sozialetan, eta nazioartekoetan. Eta zer gertatu da hemen? 'Kausa' handi horren izenean gaitz bat zuzentzearen alde handiago bat jarri dela martxan. Are okerrago: gerra-jokaeretan hastapeneko printzipio etiko-moral haiek ez direla deustarako erabili, pragmatikoak baizik. Eta bi: hizkuntza bikoitza. Hots, aipatu Kausa handiaren izenean biolentzia justifikatzea. Eta biolentzia hori indarrean dagoen une berean, eta horren izenean, bestelako biolentziak ukatzea. Baina, egiaz eta benetan, zeren izenean uka daiteke hori? Nola uka dezake biolentziaren erabilpena bere alde izanez gero indarra erabiltzen duenak? Zeren izenean uka diezaioket arerioari gauza bera egitea indarra inpostuz duenak? Harreman internazionaletan berriz ere indarra agertu da nagusi. Garipenak duen liluraz, gainera. Eta demokraziaren izenean. Ez interesak, ez garapenak legitimatzen du deus, eta gutxiago demokrazian. Demokrazian, hain zuten, auzia ez bait dago kausaren zuzentzasunean, baizik eta horretarako erabili nahi diren bitartekoetan. Berriz diot: gezur handia izan da guzti hau.

## EL SOL

### Espania eta palestinarrak

Fernández Ordoñezek Egipto eta Israelera egin bisitaldia, guztiz egokia eta beharrezkoa da gure posizioa Ekialde Hurbilean bermatzeko, zehaztu behar diren tesi batzuk aurreratzeko ere baliagarria izaten ari da. Tesi esanguratsuenetakoa da Saddam Husseinen aurkako koalizio militarrean parte hartu duten gobernu arabiarrekin harremanak estutu egin dituztela; eta, lehenik, Mubarakerekin. Egiptoko raisari gure herriarekin duen zorraren zati garrantzitsu bat barkatzea agindu zaio, agian herena, Egiptoko ia erabateko insolentzia kontutan hartuta, gainontzeko zatia ez bait da inoiz kobratuko.

Detektatu daitezke, gehiegi ez izan arren, arazo palestinarrak Washingtonen dituen planteamenduekiko hurbiltzea ematen ari dela piskanaka piskanaka. (...)

Oso deitoragarria izango litzateke Golkoko krisiaren zailtasunak trebetasun handiarekin pasa ondoren, Espainiako diplomaziak hondoago jotzeko oztupoak

izatea, Arabiar gobernu eta herriekiko izan dugun jokabidearen aurka. Etorbizunean kalteak baino ekarriko ez dizkigun hizkuntza bikoitza zuzentzeko garaiz gaude oraindik.

EDITORIALA / 1991-III-16

## EL DIARIO VASCO

### Guante zuria

Eusko Jaurlaritzak ez omen du erretorika errebindikatzailegia erabiltzeko asmorik, autonomi garapenari dagokionean, atzo Joseba Zubiak Eusko Legebiltzarrean egindako adierazpen arabera. Dialektikan oreka nagusi izan arren, agerian jartzen dute autonomi politika funtsean ez dela behar adinakoa. Baina esanguratsua da Lehendakari eta Autonomi Garapenerako kontseilariak egindako lehen deklarazioa, ikuspegi formalekit begiratuak, Juan Ramon Gebararen azkenekoak baino moderatua izatea. Autonomi garapenari ez zaiola lehentasunik emango eta Konstituzio Auzitegiari ez zaiola inolako boikotik egingo esateak, hirukoitzak interes berezia duela adierazten dute, oposizioak erabiliko litzatekeen baderak ez airetzeko. Denbo-



ITTURIA / SUD OUEST / 91-III-16

rarekin argitu dira intenzio on horiek.

ALBERTO SURIO / 1991-III-16

## EL INDEPENDIENTE

### Baseak kanpora

EEBBek Espainian erabilitako base militarrik itxtearen aurka miloi bat pertsonen egindako sinadurak, ez litzateke hutsaren hurrengo bezala hartu behar agintari publikoek. Are gutxiago, sinatzaileen artean Aranguren, Caro Baroja, Díez Alegría, Umbral, Vicent edo Gutiérrez Aragonen mailako intelektual edo idazleak daudenean sinatzaileen

arte. Hori ez da marjinitutako talde radikalaren ohizko ohia. Espainian jende askoren jarrera, gure herriak Iparramerikako militarismo eta hegemonismoarekiko duen menpekotasun mailaren aurkakoa da, eta are gehiago Golkoko gerraren esperientzia garrantzaren osten.

(...)  
Golkoko gerrak erreferendumen letra eta izpiritua betetzea baino ez du egiten. Milioia diren pertsona horien sinadurek, baseak kentzeari buruz herritarrei beste kontsulta bat egitea eskatzen dute, baina «gerraosteko» Gobernua ez dago horretarako prest.

EDITORIALA / 1991-III-16

## Egonkari I: betikoak beti berdin.

TXOMIN PEILLEN



**HOGEITASEI** urte joan dira, Jakin-en 1964.ko Abuztuan artikulatu bat idatzi nuela «Misteriorik ez da»; eta hor eta ez beste leku batean, eta euskaraz lehenbizikotz, Palestinarren aipatzen nituen, Mendoza Egiptoko judu lagunak eman xehetasunak, zehaztasunak aipatu eta hitzik aldatu gabe gauza berdinak idazten ditut, ezen garai hartan eta geroztik ere Israel eredu gisa omen nahi baitziguten. Hona zer nion Arrutriben Dionixiok Arantzazuko fraileak egin galderari Zergatik juduen ganako ikusi ezina? Fraideak ustegabearen erantzuten baitu, juduen arrazakeria agertuz, beste populua baino gorago beren burua edukitzeen dituztelako:

«Zergatik ezin ikusia... Misio bat dutela»  
«Herri-hautatua?» Eta autatze ortantxe dago Israel herriko edestiarren onarri eta arrazoin gutzia».

Urrunago Karl Marx-ek Baruxh Levy-ri idatzitako gutuna aipatzen nuen zehaztasun zion: «Judu populua osoa bere buruaren erantzutzaile gabe edo hangorak kanpoan ezarri gabe». Ezer kendu gabe inori gogorazi nahi nuke gauzak ez direla geroztik aldatu, eta Palestinarren ez direla lehenbizikoa Bilbon aipatu.

## Agur lagun zaharra

Juanjo Basterrari Milatik gora bederatzirehun ta larogeitamar latza Hogeitahiru, eguerdia lore gorrien Maiatza Bihotz handi bat galdu genuen egun ilun ta garratza Heriotzaren ezten luzeak odoldu zigun baratza Abertzaleon egutegian lutuz markatua datza.

Somatzen nago bere irria garbia ta ezaguna Entzuten nago bere Euskera kantaria ta biguna Ikusten nago bere izate umila eta laguna Horrelakoxe gizona bait zan betiko joan zaiguna Bihotzetik dut madarikatzen kendu ziguten eguna

Zein gogorra den lagun on baten derrigorrezko agurra Zein luze diren amesak eta bizitza zein den laburra Destinoaren jolas utsa da gure izate apurra Baina honekin utsik joan da heriotz zital lapurra Aize askea bait du arima

ta gorputza Ama Lurra

Ez dakit Juanjo entzuten zauden ez dakit bazuade lotan Nork ulertzen du zer gertatzen den deabruzko mundu hontan? Nora zoazte gizon onenok Nongo indarren jokotan Zuen beharra duen jendea hemen utzirik malkotan? Utsune latza ikusten nago Herri ekintza askotan.

Mingainak hitzik ezin du eta bihotzak nahi luke mintza Hobeto banu sentimenduak letra bihurtzeko giltza langile zinan eta lanean bukatu zaizu bizitza Zuretat gauza berbera ziran hizketa eta ekintza Hiltzeko hainbat beldur ez nuke zeuganatzeko balitza.

Zenbat lan ixil egin zenuen protagonismoerik gabe Bertso eskola, ikastola zein Herri borrokaren alde Aurpegi alaiaz estaltzen zenuen barneko hainbat nahigabe Hil eta gero, asko bezela zaitugu aintzaren jabe Herria egiz maite dugunok zurekin zoretan gaude.

Hitz jariatik aparte zeunden ekintza zendun dotrina Eskapate gabeko lana maitasunean egina Fabrikan ere estimatua laguna ta atsegina Hainbeste kuku arro artean txindor apal eta fina Zutaz oroitzu behar ginake beste asko esamina.


Euskera eta euskal oiturak bizi ardatz ziren zugar Heuren defentsan jardun zenuen tinko neguan zein udan Merezidun zana itxaroten zan zeru eta lurren mugan Badakit nola zure arima berearekin bildu dan Lagundu biok Aberri honen askapenerako gudan.

Honenbestean omen txiki hau ematen dut bukatutzat Merezidun zati txiki bat bakarrik dela deritza Baina ez daukat bertsoak baino gauza hobirik zuretat Literatoek hartu ezarren heuren egitura haintzat Geroan zutaz jakin dezaten balioko duten beintzat.

JON ENBEITA GERNIKA

## ZUZENDARIARI

## PERTSONAIA



### Jesus Aizpun

Del Burgo bere sokari beti tiran ari da Nafarroa beganatu helburua hori da zuen arteko tratorik ez da lortu sikira ta Aizpun zu ohartzeta denontzat komeni da ta guztik bateginik kondairaren harira Nafarroa aterako da ilunpetik argira.

JOXE MIGEL ARGIAÑARENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gereatea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIEN ETXEZAHARRETA IÑAKI URIA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 80090

### HELBIDEAK

Egoitza soziala, Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxe: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabillioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Publizitatea: Loloia, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxe: 42 93 18

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11